

# Auditz-Akularreko lehiaketa ika-mika iturri

**Auditz-Akular hizpide dugu, berriz ere. Lur eremu horretarako plana idazteko lehiaketa deitu du Udal Gobernu Batzordeak. Planak aurreko agintaldian aurkeztutako proiektua hartu beharko du oinarri. Gogoan izan, proiektu horrek ez zuela udaleko gehiengoaren babesla lortu. Hori dela eta, lehiaketa deitu izana kritikatu du oposizioak. Altza XXI plataformak lehiaketa bertan behera uztea eskatu du.**


Ainhua Irazu

**A**uditz-Akular eremurako plan partziala idazteko lehiaketa deitu du Udal Gobernu Batzordeak. 12.000 metro karratuko lur eremu horretarako antolamenduari buruzko azterlana da plan partziala, eta plana egiteko aukerata izango den enpresak abendua arteko epea izango du.

Plan honek iaz Patxo de Leon arkitektoak eginiko egitasmoa hartuko du oinarri. Proiektu horrek Auditz-Akularren babes ofizialeko 2.500 etxebizitza eraikitzea aurreikusitako oinarriko antolamenduak ez du bat egiten Plan Orokorrearekin eta aurreko agintaldian udalbatzak atzera bota zuen proposamena. Hori dela eta, Udal Gobernu Batzordeak lehiaketa deitu izana gogor kritikatu dute oposizioak, eta adostasuna lortzeko bideak aurkitzea eskatu diote PSE-Eeri.

## Oposizioak alderdien jarrera

EAJ-EA koalizioak, argi du Auditz-Akular egitasmo garrantzitsua dela hiriarentzat, baina ez dago ados Udal Gobernuaren egitasmoarekin. *"Auditz-Akular ezinbestekoa da donostialdearen garapenerako; izan ere, Pasaia, Donostia eta Errenteria lotzen ditu. Eremu zabal horri erreparatu beharko lioke Auditz-Akularreko antolamenduak, eta ez soilik hiriaren beharrei. Gainera, Udal Gobernuaren proposamenak ez du bat egiten plan orokorrenekin. Gauzak horrela, lehiaketa bertan behera uzteko eta ordenazio azterke-*



*ta berriak egiteko eskatu diogu Udalari",* dio Patxi Baztarrika EAJ-EAko zinegotziak.

Duñike Arrizabalaga EB-IU alderdiko zinegotziaren ustez ere, Auditz-Akularreko eremua oso garrantzitsua da *"etxebizitzaren arazoa konpontzeko"*. Horregatik, luze baino lehen Udal Gobernuak adostasuna lortzeko negoziazioak hasi behar dituela uste du: *"Babes ofizialeko etxebizitza asko egin nahi dira bertan, eta etxebizitzaren arazo larria da. Hala ere, ezin dugu ahaztu hirian badirela horrelako etxebizitzak egiteko beste eremu batzuk"*.

PPk, bere aldetik, *"eztabaida ez bultzatzea"*, leporatu dio PSE-Eeri. *"Auditz-Akularreko proiektua teknikariek eta alderdiek definitu behar dute, Plan Orokorren berrazterketak finkatuko dituen irizpideak kontuan hartuta. Ez gaude zetikako aldatetarako egitearen alde"*, esan digu Juan Muñoz PPko prentsa arduradunak. Gogoan izan, Udala Plan Orokorren berrazterketa egiten ari dela, eta azterketa hori datorren urtean amaituko dela.

## Lehiaketaren aurkako helegitea

Altza XXI herritarren plataformak lehiaketaren aurkako helegitea aurkeztu du. Beraien ustez, *"plan partzialaren oinarriek ez du bat egiten Plan Orokorrearekin. Beraz, lehiaketa bertan behera uztea eskatu diogu Udalari, legezaren aurkakoa delako"*.

Bien bitartean, PSE-EE alderdiak ez dio IRUTXULOri adierazpenik egin nahi izan.

**Udal Gobernuaren jarrera salatu du oposizioak**

